




1er) Hizkaria

Etorkinak Txorierrin: bizi berri baten bila gurean



IKASTURTE BARRIA PRESTATZEN



ILAZKI AKADEMIA

HIZKUNTZA - INFORMATIKA - IRAKASGAIAK

Txorierriko etorbidea 13. behea
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel.: 944522511



Finlostru eta enketapen eskolak:
-lekasgai guztiak
lehen ezaintza, DBH, batxilerga, modulosk.
-unibertsitate-ikasketetako irakasgaiak:
matematika, fisika, marrazketa teknika...
-eskolari agindutako elkarlan lanetan laguntza ematea.

Ingeles eskolak:
maila guztiak, diru laguntzak herri honetan
erabiltzen dituzte. Zamudio

Drasa kalea, 10 behea
Zamudio
Itel. 94 452 04 96
Itel. 600 78 04 46

Talde bikoitzi eta bosor-bosorako laguntza.
Euskara eta gaitelari eskolak.

DERIO HHE

Helduen hizkuntza

Aholkularitza
Bularrak irakurtzea
Gaitelari irakurtzea
Bilgintza irakurtzea
Laguntza
Irakurtzea
Irakurtzea

Hizkuntza
Irakurtzea
Irakurtzea
Irakurtzea
Irakurtzea
Irakurtzea

Zentro ofiziala eta dekoia

Hizkuntza, 5
Itel. 94 452 04 96

Irakurtzea
Irakurtzea
Irakurtzea
Irakurtzea
Irakurtzea
Irakurtzea



INGELES KLASE PARTIKULARRAK

TXORIERRIKO ETORBIDEA, 14
ZAMUDIO
TEL.: 94 452 03 31

Gorbea 5
Itel. 94 452 03 31
T. 944 543 887



TXEPETXA

Txorierriko
aek euskaltegia

Euskara eskolak

Maila guztiak

DGA

Mintzapraktika

Matrikula
zaitez

aek

www.aeknet.net

Esaiozu
euskaraz!

Gura duzun moduan,
behar duzunera.



Hizkuntza Akademia,



Gura duzun moduan,



Hizkuntza Akademia,



Hizkuntza Akademia
Txorierriko Etorbidea, 14
Zamudio
Tel.: 94 452 03 31
www.aeknet.net



Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkarte
Federazioa
(Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: totoan@topagunea.com
aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Juanxu Bilbao,
Fernando Larrondo, Jose Angel
Mentxaka, Alberto Legarreta, Mari
Tere Onaindia, Amagoia Guezuraga,
Belen Gana, Saionara eta Maripi,
Patxi Gaztelumendi, Arantzazu
Mendiguren, Bihotz Bakartien
klubeko kidea, Arrekikili.

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao,
Oihana Astobiega, Puri Martinez,
Lourdes Lasuen, Añer Mentxaka,
Asier Oruetxebarria, Juan Luis
Goikoetxea, Txepetxa euskaltegia,
Behar-Bidasoa GKE-Lezama, Kepa
Altonaga, Maite Aranburu, Udane
Goikoetxea, Aritz ta Nagel.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la
Cuadra, Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Josu
Ziordia.

Maketatzailea: Ainara Torres

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN
1578-9322

Aikor!-ek ez dau bere gain
hartzen aldizkariaren adierazi-
tako esanaren edota eritxien
erantzukizunik.



Basque Language Institute



Basque Language Institute
Basque Language Institute

diruz lagundutako aldizkaria



13 Unai Atxa



20 Sondikako Ipar Elaiak txistu taldea



14 Inter-rail



12 Gazteen txokoa



11 Ernesto Valverde "Txingurri"



24 Loiuko udalekuak

AURKIBIDEA

4Eritxia 5Gutunak 6Laburrak eta albisteak
10Euskaltegiak 11Gurean izan da Ernesto Valverde "Txingurri"
12Gazteen txokoa 13Gaztea eta... Unai Atxa 14Inter-rail
16Etorkinak 20Sondikako Ipar Elaiak txistu taldea 22Baserri
mundua 23Teknologia 24Loiuko udalekuak 26Txorierri
ezagutu 27Txorierriarrak munduan 28Sukaldaritza
29Denbora pasa 30Agenda

AIKOR! aldizkariaren laguntzailea izan gura badozu, hemen dozu erea:

Izen-abizenak _____

Helbidea _____

Telefonia _____ e-posta _____

Bankuko 20 zenbakiak _____

Egin zure aukera: 20 euro____ beste kopuru bat____

**Orri hau helbide honetara bialdu: Sabino Arana plaza, 3 48170 Zamudio
zure laguntzagaz aldizkaria hobetuko dogu!**

Botila erdi hutsik



Kepa Altonaga
(EHUko Zientzi Fakultatean Zoologia irakaslea)

Unibertsitatea eta euskal gizartea, gaur liburu interesgarria irakurri dut joan berri zaigun abuztu honetan. Burura ekarri dit, besteak beste, hila-bete lehenago Iruñean Udako Euskal Unibertsitatean eduki genuen eztabaida, euskal unibertsitatearen gainekoa. Sarri askotan ibiltzen gara gai horrekin bueltaka, ezer handirik aurreratu ezinik-edo. Oraingo honetan ere, irakaskuntza telematikoaren aitzakiaz hor aritu izan ginen hainbat lagun, karreraren bat edo beste euskaraz "sarean" zabaltzeko komenentziak: zer alde eta zer kontra, zelan egin eta nork, norentzat.

Ez ditut hona ekarriko han entzun dako guztiak. Puntu bakar batean lotuko naiz: ba ei daukagu masa kritikoa, hau da, gaur-gaurkoz Euskal Herriko unibertsitateetan euskaraz diharduten irakasle eta ikasleen kopurua nahikoa litzateke euskal unibertsitatearen eraketarako. Zenbaki bat adibide moduan: hogeita bost mila ikasle dabilta. Eta, pozaren pozez, askoren ustez unea iritsita dago bestelako bide bati ekiteko.

Ez dago esan beharrik ezin dugula huts egin urratu nahi den bide horretan, eta horrexegatik ondo baino hobeto neurtu behar ditugula eskueran dauzkagun baliabideak. Ezin gara itsutu, argi dago. Ezinbestekoa dugu

egoeraren eta baliabideen diagnostiko zuzena. Alegia, euskal unibertsitatearen bideragarritasunaren azterketa hotz eta zehatza behar dugu, ez aldarri bihoztoi militantea.

Bien bitartean gutxi gorabeherako hurbilketa alperrekoetan ibiliko gara, edo beste era batera esanda, Joserrak botila erdi beteta ikusten duen lekuan, erdi hutsik barruntatuko dut neuk. Berak 25.000 ikasle prest dauzkagula esango dit. Erantzuna neure aldetik: UPV-EHUn 1997ko datuen arabera, ikasle horien artean soilik heren batek daukala EGA maila, hau da, neuk 7500 ikaslerekin kontatuko nukeela, edo, beharbada, joandako urteotan egoerak okerrera egin duela. Eta horrelako parraplada luzea, uste soilen trukaketa abegitsuan.

Eztabaidak eztabaida, euskal unibertsitateaz diharduen liburu batean ezin dut ulertu zelan bete daitezkeen 238 orrialde UEUn izena behin ere aipatu gabe, baldin-eta horretarako beren-beregiko ahalegin demasakoa egin ez bada. Era berean, guztiz ulergaitz begitandu zait ikaslego eta irakaslego euskaldunaren inguruko inolako daturik ez plazaratzea, egileak UPV-EHUko errektore eta errektoreorde ohiak izanda. Esate baterako, ez aipatzea UPV-EHUn 1992-97 tartean urterik urte lortu ziren ikasleen hizkuntza-gaitasunari buruzko datuak, edota irakasle euskaldun doktoreen portzentaiak. Dena dela, eta hau ere ezin izan dut kapiskatu, egileek botila erdi beteta dakuste, Joserrak bezala, libururako ahaztu dituzten datu negargarri horiek gorabehera.

Nolanahi ere, liburuak nahikotxo lagundu nau Bakioko hondartzako galipot-gorotzek eragin didaten amorrua baretzen, badauzka-eta bestelako kontu itxaropentsuak.

Musika desbardinaren doinura



Udane Goikoetxea
(Bizkaia Irratiko kazetaria)

Udagoienak euriaren errezel goibela, egunerokora itzultzea dakarsku. Batean bestean tipi-tapa nekea alboratzeko asmoz, rutina atzean ixteko gogoz bidaian ibilita udatean. "Excuse me", "patiserie", ...hizkuntzak bere arrotz opor lekuri gehienetan. Udateko usaina, janzkerak, erlojua bera bere desbardin.

Sasoi honetarako baina, itzuli gara erloju sozialaren zeregina betetzen daben hedabideen sareetara.

Eguna, adibidez, hainbatek hasten dogu irratia biztuta. Uhinak logela nabarraren. Tituluak, ordenantzak, ministroak,...

Ur koloreko kafea esku artean kea dariola. Hausnarketarako bidea goizero seinatzen dauan ur ispilua...

Azken urteotan globaltasuna eta lokalitasuna garatuz joan dira.

Biztu barri dogun irratia AEBetara zein Kanadara garoaz. Benetan garrantzitsua da ikus-entzunezko komunikazioaren arloko hedabide sareak ondo osatzea eta horretan dihardue. Europan gertatu ez dan moduan, AEBetan lokalismoa eta irratia enpresa pribatuen moduan ulertuta aspaldidanik izan ziran bultzatuak eta gaur egun irratia lokalak oso errotuta dagoz.

Kontua da lokalismoari sarri ixten jakozala ateak eta kosmopolitismoari etorkizunerako txartela eskaini modernidadea dalakoan.

Goiza aurrera. Kafea iruntsi eta neure irratiaz, hurreko euskarazko informazioagaz ekingo deusat egunari, tartekamarteka musika desbardinak bere jotzen dau eta.

EXORIERU
Inmobiliaria

TRANSACCIONES DE BIENES INMUEBLES
COMPRAS, VENTAS, ALQUILER,
FINANCIACIÓN, GESTIÓN, ASesorÍA
LEGAL, etc.

INFORMACIÓN: 945 455 10 20

Autos Importación y Reparación

Importación de vehículos
Reparación y mantenimiento

Autos Importación y Reparación

GARRAJOLARIA

Miguel Ángel Ibarra

ANDARA 10
1.º ARRABATZULU
Tlf: 94 455 10 20

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aretxalde 1, 48196 Lezama edo aikortxori@yahoo.es

Julemendi herriko taberna... 20 urte eta aurrera!

Halaxe da bai, Zamudioko Herriko Tabernak duela 20 urte zabaldu zituen atea. Etenik gabe gure herriko bilgune zaharrenetarikoa bat bihurtu zaigu eta zamudioztar belaunaldi askok orduak eta bizipenak pasatu ditu bertan. Jakina da, denborak, soilik, ez diola ematen "eskilarapekoari" bere maila, eta lurrak, mahats klaseak, eguraldiak eta zainketak ere eragina dutela. Ba Julemendik uzta ederrak eman ditu, eta zailtasunak zailtasun bizirik, herrian sustraiturik eta besoak zabalik mantentzen da. Bejondeizula! Zamudioko gizatalde batek zuen elkartzeko beharri-zan fisikoaz aparte, herrirako lan egitea eta pertsona mota guztientzako gune zabala izatea izan du helburu. Beraz 20 udaberri ospatzeak merezi duenez, urrirako ekitaldi sorta bat antolatuko da. Julemendi makina bat pertsonak eraiki, mantendu eta zutunik eutsi duenez, gonbitea guztiontzako luza-turik dago, beste 20 urtez (eta gehiago) atea zabalik egon dadin. Aurrera Julemendi! Aurrera Zamudio!

Egitaraua: Argazki erakusketa: "20 urtez Julemendi, Herriko Taberna". Urriak 10, gauez, Kantaldia: euskal abestiak. Urriak 11, zapatua, egun osoko ospakizuna: hasiera zanpantzarrak, triki-poteo, ber-

tsolariak, berba batzuk, bazkari herrikoa, herri kirolen desafioak, dantzaldia gaua amaitu arte!

Julemendi herriko taberna



ARTIZAR
BARRIOALDEKO TILAKARI

JOSE ARTIÑAS, J.
Tel: 94 452 01 40

AGUSTIN GARCIA DIAZ
Bilbao

MARMOLCINTZA
GOYO
SITIO DE CANTINEROS
URRIAK ETA TILAKARIK

Uztarizgoa 1. et. 11. B. bilbo
Tel: 94 452 01 40 (Bilbo)
Tel: 94 452 01 40 - Fax: 94 452 01 40

LA TABERNA
BILBO

Oficina: Uztarizgoa 1. et. 11. B. bilbo
Tel: 94 452 01 40 (Bilbo)
Tel: 94 452 01 40 - Fax: 94 452 01 40

Zerurena Interekin

Comercializadora de...
Tel: 94 452 01 40
Fax: 94 452 01 40
AGUSTIN GARCIA DIAZ - Bilbao

ERREDA ERAMENDI

**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK**

Artea 4. planta, 119
Tel: 94 452 11 58
ZAMUDIO

GAMINIZ
BILBO

Comercializadora de...
Tel: 94 452 01 40
Fax: 94 452 01 40
AGUSTIN GARCIA DIAZ - Bilbao

Txorierriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia aurkeztu da

Irailaren 25ean Txorierriko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) aurkeztu zen Zamudio dorrean. Bertara 120 bat lagun batu ziren. Haien artean egon ziren Txorierriko alkateak, euskara elkarteak eta herrietako hainbat talderen ordezkariak.

Plan Nagusiaren berri ematen lau hizlari aritu ziren: Luis Ramón Álvarez, Txorierriko Mankomunitateko presidentea eta Lezamako alkatea dena; Sorkunde Aiarza, Zamudioko alkatea eta Txorierriko Mankomunitatean euskararen arduraduna dena; Patxi Goenaga, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea dena, eta, azkenik, Gotzon Lobera, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko zuzendari nagusia dena.

EBPNren aurkezpena ez zen oso luzea izan, eta, batez ere, planaren ildo nagusiak azaltzera mugatu zen. Bertan emandako azalpenen arabera, EBPN datozen lau urteetan (2003-2006) Txorierrin euskara normalizatzeko plan nagusia izango da. Planaren helburua euskara indartzea izango da maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, herritarrek euskaraz bizitzeko modua eduki dezaten. Horretarako, hiru arlo estrategiko jorratuko dira: euskararen transmisioa, erabilera eta kalitatea.

Plan horren arabera, baliabideak jarriko dira euskararen erabilera bultzatzeko, bai irakaskuntzaren barruan eta bai eskolaz kanpo ere. Herrietako taldeak ezinbestekotzat jotzen dira zeregin horretan, eta euren helburuei erantzuten saiatuko da Plan Nagusia. Gurasoak eta zaintzaileak euskararen alde sentsibilizatzeko kanpainak ere izango dira.

Beste alde batetik, administrazioan eta merkataritzan ahaleginak egingo dira euskara lan hizkuntza izan dadin.



Euskararen kalitatea hobetzeko hainbat jarduketa prestatuko dira liburugintzan eta kulturgintzan, esate baterako, euskal literatura bultzatzea edo kultur taldeei euren lana euskaraz burutzeko laguntza ematea.

Aurkezpen ekitaldian agindutakoaren arabera, helburu horiek guztiak lor-

tzeko, gizarte eragile guztiak hartuko dira kontuan, eta Plan Nagusiak laguntza eta informazioa eskainiko dizkie euren beharrak betetzeko.

Txorierriko Mankomunitateak elkarlanean jardun du Eusko Jaurlaritzarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin plan hau burutzeko.

ZAMUDIOKO ISTANBULA
Taldekoak. Elberrak eta oporak

Talderi deitzen di ZAMUDIO
Taldeak: 100 lagun inguru

ATARIKARI

Irakaskuntza, 100 lagun inguru
Taldeak: 100 lagun inguru

BIDE-GORRI

Elkarlanean jardun du Eusko Jaurlaritzarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin plan hau burutzeko.

ARGIA



Frontearen 500000
 gaia ezarri behar da.

Salonak eta gela
 ezarri behar dira.

Sexuaren langileak

Argia
 Argia Argia Argia

Argia
 Argia Argia Argia

Argia
 Argia Argia Argia

Argia
 Argia Argia Argia

Argia
 Argia Argia Argia

Argia
 Argia Argia Argia

Bete postala eta bidali!

Nafarroa, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko 32 bikote amateurrek hartuko dabe parte txapelketan zezeilera arte. Lezamako Pilota Elkarteak antolatzen dau txapelketa, Udalak diruz lagunduta.

Institutuko gurasoek herriko eskolako Gurasoen Elkartearekin batera egin dabe lan iniziatiba honetan.

Mohamed Kamel, M. Tel. + France 04 489 16 37
and via SKYLINE & ORSOLAB

Gimnasio berria Sondikako kiroldegian

Irailaren 1ean gimnasio berria inauguratu zen Sondikako Gorondabeko kiroldegian. Gimnasioak bi solairu dauzka. Lehenengoan muskulazio ariketak egiteko aretoa dago eta 20 makina ditu. Bigarren solairuan, berriz, 30 makina daude ariketa kardiobaskularrak egiteko.

Gimnasioa 10:00etatik 21:30ak arte egoten da zabalik dago astelehenetik barikura bitartean. Zapatueta, berriz, 9:00etatik 14:00ak arte eta 17:00etatik 20:00ak arte irekitzen dute, eta domeketa, azkenik, 9:00etatik 14:00ak arte.

Beste alde batetik, irailaren hasieratik masaje-zerbitzua egun osoan eskaintzen da.



Langabetuentzako eskaintza zabala Txorierriko Behargintzan

Behargintzak langabetuei zuzendutako "jaso-makinako gidari operadorea" ikastaroa antolatzen dau zemendirako. Kurtso honetarako izena emateko epea urriaren 17an amaituko da. E-business teknikariak sortzeko ikastaroa be prestatu dau urria eta martiaren bitartean. Formakuntza jaso ondoren 10 ikasle kontratuko dira urte baterako egun erdiko jardunean. Interesatuak urriaren 8ra arte dabe izena emateko epea. Halaber, nork bere lana sortzeko sentsibilizazio eta motibazio mintegia emongo dabe urriaren 7an, 9.30etatik 13.30etara. Beste alde batetik, Behargintzak On-line prestakuntza jasotzeko aukera eskaintzen dau www.demabiz.com web orrialdearen bidez. Bertan, 51 bat ikastaro aurkituko dabez erabiltzaileek, ingurumena, enpresaren kudeaketa eta arriskuen prebentzioa, besteak beste. Horreetatik 5 aukeratu ahal izango dabez. Bukatu ondoren ziurtagiria emango jake.

Loiuko Eskulangintza eta gastronomiako XI. azoka

Urtero lez, Eskulangintza eta gastronomia azoka izango da Loiun urriaren 19an, 10:30etatik 14:30etara hain zuzen be. Horrela, bada, azokaren XI. edizioa beteko da aurten.

Eskulangintzaren erakusketa Udal frontoian izango da eta bertan 32 artisauk hartuko dabe parte. Gastronomia atalari jagokonez, 50 postu jarriko dira Herriko eta Aransotegi enparantzetan.

Goiz osoan zehar trikitilariak, txistulariak eta zantzar talde bat ibiliko dira azokaren esparrutik. Era berean, txahal bat erreko da Herriko enparantza eta goizeko 12:30etan txakolina eta okelea eskainiko jake bertora hurbilduko diranei.



GARAIOLTZA, S.A.

INDUSTRIAK ERAKUNTZAK

LEZAMA

ETXERAKUNTZAK, MERKATUETZA-LOKALAK ETA GARAJEAK

LEHEN MAILAKO ERAKUNTZAK, LEHIAK HANIHAK,
ORDAINTZEN DIBERTASUN HANDIAK

TF. : 94 455 50 19

Udako lehen azoka, 128 (betea)
Lezama (Bizkaia)



IATK BAYONA

ILEAPAINDEGIA

ENBIL, ILEAPAINDEGIA
ETA ABILAK ERABILTZAK
DUTZEN
ORDAINTZEN DIBERTASUN

INDUSTRIAK ERAKUNTZAK, S.A. - IATK BAYONA

ZANLIDIO MOTOR



**94 452 1616
94 452 1648**

Ed. Zanolio
Pab. 11, Zanolio
40100 Zanolio
BILBAO

[illegible]

Euskaltegiak bidegurutzean

Geroago eta sarriago entzuten ari gara helduen euskalduntzean argi gorria piztuta dagoela, matrikulazioa jaisten ari dela euskaltegietan. Ikasturte berriaren aurrarian Txepetxa-AEK euskaltegira (datorren urtean 20 urte beteko ditu) eta Txorierriko Udal Euskaltegira jo dugu euren iritzia eske.

Azaldu, mesedez, aurtengo kanpainaren mezua.

-Txepetxa-AEK: "Bai esan? iDíselo en euskara!" Erabilerari indarra emateko asmoa dago. Adin ezberdinetako jendea dago kartelean, baina euskaraz elkar ulertzeko beharra azpimarratu dugu.

-Txorierriko udal euskaltegia (UE): "Gura dozun moduan, behar duzunera". Alde batetik, bizkaierari bere presentzia aitortu eta bermatzeko asmoarekin, eta, bestetik, xede ezberdinetako ikastaroak eta moduluak eskaintzen ditugulako.

"AEK: euskaltegiak bere ahaleginak egiten ditu, baina denok dugu gure erantzukizuna"

Zein motatako eskaintzak dituzue?

-Txepetxa-AEK: Euskalduntzea, alfabetatzea eta EGA ikastaroak eskaintzen ditugu, Herri guztietan eta baita lantegietan. Astero, 8 edo 7 ordu eta erdikoak. Horiek dira diru laguntza duten bakarrak. Beste modulu bereziak, "kontratu ikastaroak" deituak, eskaintzen ditugu, baina, dirulaguntzarik ezean, asko garestitzen dira. Politika tartean dela diskriminazio itzela da udal euskaltegiagaz konparatuta.

-UE: Astean 10, 8 eta 4 orduko ikastaroak dira, euskalduntzea, alfabetatzea, bizkaiera, eskakizunak (administrazioa,

hezkuntza...), merkatarientzako ikastaro bereziak, EGA... Gainera, ikastalde bereziak proposatu eta antolatzen ditugu (gurasoentzakoak, enpresetan,...)

Beka sistema (garraioa zein aprobetxamendua) eta dirulaguntzak tramitatzen ditugu geure ikasle guztientzat.

Zein da azken urteotako joera matrikulazioari dagokionez?

-Txepetxa-AEK: Gutxitzen joan da. D ereduaren eragina dela esaten da, baina ez gaitzezen engaina, D eredutik irteten diren askok ez dute erabiltzen eta oso kalitate eskaseko euskara dute. Beste jende batek umeengan delegatu egin du euskararen erabilera eta uste du horregaz nahikoa dela. Hausnarketa egin behar dugu denok, euskaltegiak bere ahaleginak egiten ditu, baina denok dugu geure erantzukizuna, eta kanpotik ez zaigu etorriko konponbidea.

-UE: Ikasle kopurua euskaltegi guztietan jaitsiz doa, batik bat hasiera mailetan. Hala ere, xede berezietako ikastaldeak ugaltzen hasi dira eta esparru berriak geureganatuz goaz. Kolektibo berriei begira gaude, arlo ezberdinetan euskararen beharrezana, interesa pizten ari da.

Askotan aitatzten da euskaltegiak berrantolatuta beharra. Zuei eragingo dizue?

-Txepetxa AEK. Eusko Jaurlaritzak laster atera gura du ebazpen berri bat.




Gainditzen duen ikaslea bekatuko du bakarrik. Garrantzi berezia eman gura diote tituluari. Faltan botatzen duguna erabileraren aldeko apustua da. Dena dela, negoziazioetan dagoz eta zalanza asko ditugu. Euskaltegien mapa berria ere mahai gainera dago.

"Udal Euskaltegia: kolektibo berriei begira gaude"

-UE: Gure zentroa HABEK eta Txorierriko Udalek jartzen duten diru publikoarekin osatzen da. Une honetan, HABEK zer joera izango duen jakitea ez dago geure esku. Epe laburrera, finantzazioaren aldetik, ez da aldaketa handirik aurreikusten.

Testua eta argazkia: J.M. Mentxaka



"Zelaian adoretzu jokatu dugula adierazi nahi diet zaleei"



Fitxa

Izena: Ernesto Valverde Tejedor "Txingurri"

Adina: 39 urte

Jaioterria: Viandar de la Vera (Cáceres)

Jokalaria

1982-83: Alaves B

1982-85: Alaves

1985-86: Sestao

1986-88: Espanyol

1988-90: Barça

1990-96: Athletic

1996-97: Mallorca

Entrenatzailea

1997-99: Kadete

1999-00: Gazteen ohorezko maila

2000-01: Athletic Klubeko 2. entrenatzailea

2001-02: Kirol zuzendariaren entrenatzailea

2002-03: Bilbao Athletic

2003: Athletic

Athleticek Zamudioren kontra jokatu zuen aurre-denboraldiko lehenengo partida. Orduan, uztailaren 29an, "Txingurri" entrenatzaile berriarekin egoteko aukera izan genuen eta hurrengo batean elkarrizketatuko gurela hitz eman zigun. Liga hasi berritan, hitza bete eta Lezaman hartu gaitu.

Ligako lehenengo partida San Mamesen izan zen, Barçaren aurka. Zelan gogoratzun duzu egun hori?

Egun berezia izan zen niretzat; alde batetik, debuta izan zelako eta, bestetik, Barça talde ona izateaz gainera, nik ere bertan jokatu nuelako. Gure ekipoak maila ona erakustea espero nuen eta halaxe gertatu zen, nire ustez. Gainera, zaleek hasiera-hasieratik egin zuten bat gurekin. Tamalez ez genuen irabazi...

Zelan hartu zenuen Athletic entrenatzeko proposamena?

Ilusio hori baneukan aspalditik eta gogo handiz hartu nuen. Jakin badakit ardura handia dena, baina era berean pentsatzen dut hostasun pixka batekin ere hartu behar dela. Osterantz, gerta daiteke karguak mendearen hartzea.

Jokalari gazteen aldeko apustua egiten duzu... Aurpegi berriak ikusi ditugu zelaian, behintzat.

Taldearentzat onenak izan daitezkeen jokalarien aldeko apustua egiten dut partida bakoitzean. Duda barik, esperientzia oso garrantzitsua da zelaian, baina gazteei ere eman behar zaie aukera. Nire ustez,

badira jokalaria, Athleticentzat oso onak izan daitezkeenak, eta konfiantza daukat haiengan.

Eta aurten ez dago fitxaketarik...

Argi eta garbi, goi mailako fitxaketak egin dituzten taldeek badute zerbait euren alde, baina baita euren kontra ere. Jokalari berriak moldatu egin behar dira taldera. Guk ez dugu ez bata, ez bestea. Beno, nire lan egiteko modura moldatu behar dute, jakina! Hala ere, guk baditugu sendoago egiten gaituzten beste gauza batzuk.

Guerrero dela eta ez dela, eztabaida handia sortu da bazterretan...

Nik 25 jokalaririk ditut eta guztiak onak direla uste dut. Haien ezaugarriak kontuan hartuta, partida bakoitzerako egokienak direnak aukeratzen saiatzen naiz. Badakit jokalaririk batzuek transzendentzia gehiago dutela, baina nik artez jokatu behar dut. Batzuk ez dira bat etorriko nire erabakiekin... Zer egingo dugu, ba!

Zelan dator Athleticen harrobia?

Beheko mailetatik natorrenez, jokalaria ondo ezagutzen ditut. Batzuk, luzaro barik, lehenengo taldean egon daitezke.

Hala ere, beste faktore asko hartu beharko ditugu kontuan: haien bilakaera, lehenengo taldearen lehentasunak...

Zeintzuk dira taldean finkarazi nahi dituzun baloreak?

Lehenengo eta behin gustatuko litzaidake zaleei adieraztea jokalaria irabaztera irtengo direla zelaia. Galdu edo irabazi egingo dugu, baina zelaian adoretzu jokatu dugu. Beste alde batetik, lehen aipatu ditugun konplexuak —atzeritarrik eta fitxaketarik eza— kendu nahiko nituzke taldetik, gogaitu baino ez baitute egiten. Onartu behar ditugu, baina ahalik eta ondoen lehiatu behar dugu.

Orduan, Athletic UEFAra...

Helburu horretara heldu nahi dugu eta, zaila izan arren, kontsekuenteak izan behar dugu. Dena dela, ahalik eta goien egoten saiatuko gara, ez izan zalantzarik.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

Txepetxa euskaltegiko udako ikastaroa

AEK-ko Txepetxa euskaltegiak hainbat ekintza prestatu ditu udako ikastaroaren proiektuaren barnean. Haietako bat Euskal Herriko kultur elkarteak ezagutzea izan da.

Hori dela eta, uztailean, Txorierrin dugun Kukubiltxo euskal antzerki taldearekin harremanetan jarri eta haiengana joan ginen euskaltegiko ikasleekin batera.

Kukubiltxo taldeko kideek harrera ezin hobea egin ziguten. Josu Kamara antzerki taldeko zuzendaria izan genuen gidari.

Ikasleak irrikan zeuden antzerki talde baten nondik-norakoak ezagutzeko, galderak egiteko eta ezezagun zitzaizen mundu hori nolabait berenganatzeko.

Bertan jakin genuen Kukubiltxo antzerki taldeak ekitaldi mordoak egin duela eta hamaika izan direla dagoeneko gauzatutako asmoak, ideiak, ilusioak,... baita haiek aurrera eramateko parte hartu duten pertsonak ere.

Horrez gain, taldearen sorreraren berri eman ziguten. 1977an sortu zen Larrabetzun, Toti Martinez de Lezearen eta bere senarraren eskutik, trapu zahar batzuekin txotxongiloak egin eta haien urratsei jarraituta.

Kukubiltxo izena ere Totiri bururatu omen zitzaion, jendeak beste hizkuntzetako ipuinetako pertsonaiak ezagutzen zituen eta hemen, Euskal herrian, baze goen Pulgarcito-ren ordezkotzat: Kukubiltxo.

Izena gustukoa izan eta antzerki taldea horrela izendatzea erabaki zuten.

Euren egoitzan bertan ideiak sortu, bideratu eta gauzatzen dituzte eta, nahiz eta lana handia izan, ilusioz beteta daude. Bertan sortzen dira gerora ikus ditzakegun



Ikasleek arretaz jarraitzen diete Josu Camarak emandako azalpenei.

pertsonaia harrigarriak, eszenatoki miresgarriak, janzkera liluragarriak...

Esan beharra dago Kukubiltxo taldearen kezka nagusietako bat euskara dela, bertoko hizkuntzan jendea antzerkiaz gozaraztea; kezka hori, ordea, ez da oztopoa izan, erbestera irteten direnean, beste hizkuntzetan aritzeko, esaterako, gaztelaniaz, frantsesez zein katalanez.

Bisitaldian, antolatzen ari diren azken antzezlanerako prestatutako panpinak ikusi eta moztarazteko aukera eskaini

ziguten. Era horretan, aukera aparta izan genuen hainbeste ezagutzen ez dugun arte miresgarri horretan murgiltzeko.


Horregatik guztiagatik eskerrak eman nahi dizkiogu Kukubiltxo antzerki taldeari, ilusioz beteriko mundu zoragarri bat eskaintzeagatik eta, era berean, geurea dugun hizkuntza honetan antzezlaneraz jostatzeko aukera zabaltzeagatik.

Testua eta argazkia: Txepetxa euskaltegia, udako taldea.


J. ELORRIAGA
Prestatzen dituen zerbitzuak: Antzerkiak, irakaskuntza, ikasleentzako proiektuak.
Bilbo, 48011
Telefonoa: 94 430 00 41
E-maila: jelorriaga@txepetxa.eus


LEKE'S JATETXEA
S.L.R.

Zuzendaria: J. Leke
Telefonoa: 94 430 00 41
E-maila: jleke@lekes.com


LAUBURU
Bilbo, 48011
Telefonoa: 94 430 00 41
E-maila: lauburu@txepetxa.eus

Unai Atxa * Press bancaren lehiakidea

“Telebistako saio batzuek fama txarra ekarri diote kirol honi”



Duela 6 urte Sondikako gazte hau gimnasio munduan hasi zen lesio bat sendatzeko asmoz. Baina, denboraren poderioz, terapia zaletasun bihurtu da. Horrela, bada, pisuarekin lan egiteak gorputz-atalak lantzeko aukera eskaintzen du eta gimnasiora egunero joateko adorea ematen dio Unairi. Bere esanetan, kirol hau esker txarrekoa da emaitzak epe luzean ikusten baitira. Hala eta guztiz ere, berak gogoz ekiten dio pisuak altxatzeari.

Zertan datza press banca?

Banku lau batean etzanda, pisua duen barra altxatu behar da. Hainbat modalitate daude eta nik altxaldiak egiten ditut lehiaketetan. 100 kilo altxatu eta ezin da barra euskarrian utzi epaileak esan arte. Huts gehiegi izanez gero, ipurdia altxatu edo oinak mugitu esate baterako, deskalifikatu ahal zaituzte. Barra gehiagotan goratzen duenak irabazten du.

Zuk duzun gorputza lortzeko lan itzela egin beharko da, ezta?

Egunero gorputz-atal ezberdin bat lantzen dut, hau da, egun batean sorbalda, beste batean hankak... Era berean, lehiaketak prestatzeko press banca egiten dut astean bitan.

Elikadura ere garrantzitsua izango da...

Gure giharrek lan handia egiten dutenez, gorputza behar bezala elikatu behar dugu. Hidratoak, eta batez ere proteinak, ezinbestekoak dira guretzat. Nik sei orotdu egiten ditut egunero. Amari eskertu behar diot... Asteburuetan, berriz, atseden hartu eta denetarik jaten dut.

Askotan entzun dugu hainbat kontu anabolizatzaile eta esteroideei buruz...

Sasoi onean egoteko aritzen naiz gimnasioan eta nire helburuak betetzeko ahalgin handiak egin behar izan ditut. Anabolizatzaileak hartzearen aurka nago.

Gai honetan, telebistako saio batzuek gimnasio munduari ospe txarra ekarri diote. Kasu bakanengatik askoren lorpenak ilundu egiten dira.

Gorputza ispiluan ikusita, pozik zaude zure muskuluekin?

Nire gorputz-masa handitu nahi dut, baina gihartsuegi egon barik, edozein aktibitate egin ahal izateko.

Nolakoa da lehiaketen giroa?

Giro ezin hobea dago, gezurra badirudi ere. Lehiakideen arteko harremana oso ona da eta publikoak ere errespetu handiz hartzen gaitu. Oraindik oso kirol ezaguna ez izan arren, lehiakideen kopurua urtero handitzen dela sumatu dut. Egia esan, pixkanaka-pixkanaka, gimnasio zaletasuna handituz doa, geure burua zaindu behar dugula ohartu gara eta.

2000. urtetik hona txapelketa askotan ibilia zara, zein gogoratzen duzu bereziki?

2002. urtean Euskadiko txapelketa Iñaki Malaxetxebarriaren omenez egin zen. Berak zeraman txapelketaren ardura aspalditik eta, zoritxarrez, istripuz hil zen. Nire garaipena berarentzat izan zen.

Zeintzuk dira zure etorkizunerako planak?

Datorren urtean kulturismo lehiaketetan ere parte hartzeko asmoa daukat.

Testua: Itxaso Marina

Argazkiak: Unai Atxa eta Itxaso Marina



Fitxa

Izena: Unai Atxa

Herria: Sondika

Adina: 24 urte

Pisua: 72 kilo eta 70 baino gutxiago lehiaketatan
Lehiaketak: kategoria nazionalen aritzen da (100 kilo)

2000: Bizkaiko txapelduna

2001: Bizkaiko txapelduna

Euskadiko txapelduna

2002: Bizkaiko txapelduna

Euskadiko txapelduna

Espainiako txapelketan seigarrena

2003: Espainiako txapelduna

Taldeak

2001: Txapelduna Artebe Gym taldearekin (Sondika) erregionalean

2002 eta 2003: Txapelduna Artebe Gym taldearekin kategoria nazionalen.

"Inter-rail"-a, Europatik bidaiatzeko era

Uda heltzean, denok egiten dugu bidaiaren bat. Leku asko dago bisitatzeko eta beste hainbeste era bidaiatzeko. Guk Erdialdeko Europako hiri ezagunenak aukeratu genituen, eta bidaiatzeko erarik merkeena: inter-rail-a.

Bere izenak laburbildu nahi duen moduan, inter-rail-a estatu jakin batzuetatik trenbide nazionaletatik libreki bidaiatzeko txartela da, denbora mugatu batean, noski. Geure kasuan, 220 euro ordainduta, 22 egunean bidaiatu ahal

izan genuen Frantzia, Luxemburgo, Belgika eta Herbehereetatik.

Garraioa lortuta beste bi arazori aurre egin behar diezu. Non lo egin eta non jan. Hiri handietan lo egiteko aukerak zabalak dira, baina merkeenak ia beti gazteen aterpetxeak edo *youth hostel*-ak izaten dira. Haien prezioa 10 euro-tik 25 euro-ra bitartekoa izaten da, gosaria barne. Jateko merkeena bilatzen bazabiltza, supermerkatuak dituzu, baina hiri barnealdeetan gutxi aurkituko dituzu.

"Garraioa lortuta beste bi arazori aurre egin behar diezu: non lo egin eta non jan"

Abuztu amaieran abiatu ginen Bilbotik goizean goiz Hendaiara bidean autobusez. Bertan TGV hartu eta arratsaldean Parisen ginen. Bost egun igaro genituen bertan, ezagunak diren monumentu, museo eta auzoak ikusten soilik. Hiria oso garestia da, nahiz eta kapritxoei uko egin. Hala ere, benetan merezi duen hiri horietako bat da.

Bertatik Luxemburgora abiatu ginen. Luxemburgo hiri txikia da, muino baten gainean kokatua, Erdi Aroko harresiekin. Bere inguruan lehen fosak zirenak gaur egun parke bihurtuta daude, zuhaitzez beteta. Hiri oso lasaia, hiria dela esan ezin daitekeen arren, herri handia baino. Egun batekin nahiko izan genuen ezagutzeko. Gehien harritu gintuena hiri osoan iturririk ez egotea izan zen, geroago beste hiri batzuetan konprobatu ahal izan dugu nahiko arrunta dela handik.

Bisitatu genuen hurrengo hiria Brusela izan zen. Metropoli kaotiko bat da, non semaforoak gutxi errespetatzen diren. Ibiltaririk ez badago, nahiz eta semaforo gorria izan, autoek aurrera jarraitzeko ohitura dute. Plaza bat eta bi kale ditu ezagutzeko Bruselak, besterik ez. Hurrengo jomuga Belgikako beste hiri bat zen, Europako hiririk politenetariko bat, Brujas. Kaleetako galzada-harri bakoitzak kariñoz jarritakoa dirudi. Bertako kale lasaieetatik paseatzea da hoberena, eta iluntzean bertako taberna edo pub batean sartzea, eta garagardo karta eskatzea (Belgikan milatik gora garagardo autoktono dituzte).



HEZKUNTZA ESKANTZA	
HEZKETA ZIKLOAK	
LEHIAKETA HONAKOAK IRPILAKETAK Adierazleak: 2.000 euro -PROIEKTU HONAKOAK GABATOKA Gaitasuna: 4.000 euro -HEZKUNTZA HONAKOAK Gaitasuna: 1.000 euro	H HEZKUNTZA HONAKOAK -HEZKUNTZA HONAKOAK SEKULARRIZATZIOAK Gaitasuna: 2.000 euro -HEZKUNTZA HONAKOAK Gaitasuna: 2.000 euro
KONTAK -HEZKUNTZA HONAKOAK Gaitasuna: 1.400 euro	HONAKOAK HONAKOAK -HEZKUNTZA HONAKOAK Gaitasuna: 1.400 euro
BATELOROKI	
BATELOROKI HONAKOAK	

***“Amsterdameko
aterpetxe batzuetan
kartelak 8 hizkuntzatan
zeuden, haietako
bat euskara”***

Brujas lasaitik Amsterdamera aldatu ginen. Zuria eta beltza bezalako kontrastea. Amsterdam euskaldun askoren gus-tukoa dirudi (aterpetxe batzuetan kartelak 8 hizkuntzatan zeuden, haietako bat euskara). Hiri gogorra, bertan egon arte imajinatu ezin duzuna. Drogen eta sexuaren "kulturan" murgilduta guztiz. Kale guztietan aurki ditzakezu coffe-shop




Frantziako "Arc de Triomphe".

***“Inter-rail-a hiriak
ezagutzeko erarik
hoberena dela esan
dezaket, baita
merkeena ere”***

pare bat (taberna modukoak baina desberdintasun batekin, alkoholik ez da sal-tzen, baina marihuana eta haxix karta bat duzu), smart-shop bat (hauek dendak iza-ten dira eta bertan droga "naturalak" sal-tzen dituzte: perretxikoak, kaktusak, mota askotako landareak...) eta sex-shop-en bat. Milaka bizikleta ibiltzen dira egunero Amsterdametik, eta tranbiekin batera kaleak anarkia hutsa bihurtzen dituzte. Bost egunen buruan, dirua amaitzear zegoela, etxera bueltatzea erabaki genuen.

Tren sesio luze baten ondoren etxean ginen, irten ginenetik 18 egunera.



Amsterdameko kanal tipikoa. Haraino ailegatu zen Aner inter-rail-ez.



Brujaseko udaletxearen ikuspegia.

Inter-rail-a hiriak ezagutzeko erarik hobe-rena dela esan dezaket, baita merkeena ere. Guztioi animatzen dizuet bidaiatzera, esperientzia ezin hobea da eta.

Testua eta argazkiak: Aner Mentxaka

Mead

Mead Embalaje S.L.

San Martín, 28
48170 Zornueta - Vizcaya

☎ 94 - 94 452 38 48
94 - 94 452 35 16
Teléfax: 94 - 94 452 20 88
94 - 94 452 20 22
e-mail: info@mead.com

**TOLDOS
ZAMUDIO S.L.**

- Toldoak valde eta aldatzen
- Toldoak konpente eta pintzen
- Gogoki toldoen mantentze lanak

**Eketo aurtena
inprimatzen**

Pol. Torrelarrugaiti P-6 A-1
48170 Zornueta (Bizkaia)

TEL. 94 452 35 85

XVRTENETXE, S.A.

INDUSTRIEN SA MOTA ETA KONPOSATZA
KONZERTU-LORZUNEA

ENBILGUNEAK ETXERAK

Arantzaz, 35	Arantzaz, 37
PL. 94 973 00 00	94 973 00 00
94 973 00 00	94 973 00 00
94 973 00 00	94 973 00 00

Jaioterritik urrun, oztopo guztien gaineratik ametsa bete nahian

Testua eta argazkiak: Itxaso Mairna

Hasieran, gure herria hiru hilabetez bisitatzeko baimenarekin etortzen dira. Hiru hilabeteok igaro ondoren, legez kanpoko egoeran izaten dira paperak lortu arte. Egia esan, leku batetik bestera urte asko eman behar izaten dituzte dokumentazioa behar bezala eduki ahal izateko, eta beti ez dute lortzen. Horrek arazo handiak dakarzkie, batez ere, etxebizitzari eta diruari dagokionez. Txorierrin, gutxi gorabehera, 453 etorkin daude. Gehienak Latinoamerikatik etorritakoak dira, haiek erraztasun handiagoa baitute hizkuntza aldetik. Edozelan ere, hona datozen atzeritar guztien egoera legala ez da berdina izaten, eta hainbat arrazoi izaten dituzte hona etortzeko. Hori bai, bizi berri bat bilatzeko ilusioak batzen ditu guztiak.

Gloria Gomez Estrada (Kolonbia, 36 urte)

1998. urtean, sei hilabeteko haurdunaldian zegoela, Espainiarako hegazkina hartu zuen. Berarekin bost urteko alaba ekarri zuen, eta ilusioz beteriko maleta ere bai. Kolonbian Mungiako gazte bat ezagutu zuen eta berarekin bizi berri bat hastea erabaki zuen. Zoritxarrez, mutil lagunak bertan geratu behar izan zuen.

Hasieran Estremaduran bizi izan zen, mutilaren senide batzuekin, baina ez zegoen oso pozik bertan jasotako laguntza medikoarekin, eta dei batzuk egin zituen Deriora etortzeko.

Mojei eta mutilaren senideei esker, beharrian guztiak beterik izan zituen bere bigarren alaba jaio arte. Indarrak berritu eta berehala jarri zen martxan paperak behar bezala izateko. "Gizarte-segurtasuna edukitzea eta alabak ondo zainduta egotea zen nire lehenengo eginbeharra", esan digu. Horregatik, zeru-lurrak astindu zituen bere laguna Kolonbiatik atera ahal izateko. Hura etorri zenean, gauzak erraztu egin ziren.

"Alabak ondo zainduta egotea zen nire lehenengo eginbeharra"

Leku pare batean bizi izan ondoren, azkenean Derion kokatu ziren. "Nahiz eta lana izan, mutil-lagunak ez zeukan nomi-



narik, eta pisua aurkitzea kostatu zitzaizgun", gogoratu du.

Derion dena zen ezberdina: kaleak, autobusak, jendea, janaria eta, batez ere, eguraldia. Hala ere, Gloria laster bertakotu zen. "Lagun handiak ditut hemen. Ez dut inoiz neure burua baztertuta ikusi", ziurtatu digu. Alaba nagusiak, berriz, arrazakeria ezagutu zuen Bilboko eskola batean ikasten zebilela. Txorierrin, zorionez, elkartasuna eta maitasuna baino ez ditu ezagutu. "Haur txikia oso gaixorik izan zen eta nik denbora luzea eman nuen berarekin ospitalean. Ez neukan nork zaindu bestea... Eskerrak bikote batek etxean hartu zuena...", triste jarri da. Gaixotasunak eraman zuen alabatxoa, baina momentu latz horretan ez ziren baka-rrik egon, herri osoaren laguntza izan zuten.

Pertsona batzuen jarrera txarra gorabehera —Jainkoaren esku uzten du hori—, kolonbiarrak ez dauka kexarik. Bere herrian idazkari kontularia zen eta hemen neskame egiten du lan, baina hori bai, kontratu barik.

Dagoeneko, Gloriak ez du mutil-lagunik, baina ez zaio damutzen hona etorria. Gainera, irailaren 4an herritartasuna jaso zuen.

"Alaba hil zenean, Kolonbiara itzultzea pentsatu nuen", kontatu digu, "Baina ume nagusiak hemen izango du geroa, eta ez gure herrian. Zuek aukera asko dituzue eta ez dakizue aprobetxatzen", argi hitz egin du.



Mustapha Mouadi Arhila (Maroko, 40 urte)

Humanitate ikasketak bukatu berritan, Mustapha Bergarara ailegatu zen 1989. urtean. Legez kontrako egoeran bizi izan zen urtebetez eta, ondorioz, bazterketa gogorra jasan zuen. Azkenean, Deustuan gaztelera ikasteko izena eman eta, ikasle moduan, hemen bizitzeko baimena lortu zuen.

Gizarteratzea ez zaio batere erraza gertatu, arrazakeria gizartetik nahiz Administrazioetik jaso du eta. “Zuek dituzuen eskubideak lortzeko trabak baino ez ditugu eta maila guztiez ari naiz: giza eskubideez, sindikatu eta lan eskubideez...”, esan digu. Mustapha saltzailea da orain, baina azkeneko urteotan denetarik egin behar izan du. “Normalean zuek nahi ez dituzuen lanak egiten ditugu, batzuetan behin-behineko kontratuarekin, beste batzuetan kontratu barik. Ni lorezaintzan eta eraikuntzan ibilia naiz, patatak eta mahatsak bildu ditut, zamalanetan ere aritu naiz...”, gehitu du. Horretaz gain, etxebizitza ere oso arazo larria da etorkinarentzat. “Erortzeaz zegoen pisu batean bizi izan nintzen beste 14 lagunekin. Gero pertsona bat ezagutu nuen eta elkarrekin bizitzera joan ginen”, gogoratu du. Eta horrela ibili da, pisu batetik bestera, 2000. urtean Zamudiora etorri zen arte.

Mustapharen ustez, egunero langile asko etortzen da herrira, eta horrek egin du Zamudioko jendea irekia izatea. Berak ez du arrazakeriarik sumatu. “Beno, ezberdintasunak badaude kultura aldetik, eta horiek ikusmina sortzen dute”, aitortu du. Batez ere, orain dela urte bat emaztea ailegatu zenetik. “Berak janzkera tradiziozkoa eta modernoa tartekatuta arren, beti janzten

du hijab-a (zapia). Batzuek ez dute ulertzen hori, baina azken batean bere erabakia da”, esan digu, “Nik urte asko daramatzat hemen, eta dagoeneko gauza horiei ez diet ematen hainbesteko garrantzirik. Berak, ordea, bai, eta errespetatu egin behar da”. Dena dela, janzkerarena ez da auzokideei arraro gertatzen zaien gauza bakarra, Ramadanak ere kezkatzen ditu batzuk. “Jateagatik ez garela infernura joango ziurtatzen digute lagunek”, irribarre egin du.

Beste alde batetik, hizkuntza oztopo handia da gauza arruntak egiteko. “Emazteak ez daki ondo gaztelera, eta ia leku guztietara joan behar izaten dut bera-rekin”, azaldu digu.

“Espero dezagun gure seme-alabek guk baino eskubide gehiago edukitzea etorkizunean”

Duela gutxi Mustapharen emazteak seme bat izan du eta biek ilusio handiz hartzen dute ardura berri hori. “Saiatuko naiz semeak zeuen kulturaren eta geurearen balorerik onenak barnera ditzan”, argi dauka, “Espero dezagun gure seme-alabek guk baino eskubide gehiago edukitzea etorkizunean, izatez, Anas gure semea, zamudioztarra da”.

Marokoarrak Espainiako nazionalitatea du eta andreak Europako Komunitatekoa. Bere herrira inoiz itzultzeko asmoa duen galdetuta, duda nabaritzen zaio aurpegian. “Nire herria asko maite dut, baina hemen izan dut nire garapen pertsonalik handiena. Beldur naiz nire jaioterrian ez ote naitzen sentituko atzerritarra banintz bezala”.

Etorkin Kopurua Txorierrin

	Etorkinak	Biztanleak
Loiu (Zabaloeixen daudenak kontuan hartuta)	176	2.100
Sondika	64	4.232
Derio	86	4.924
Zamudio	84	3.135
Lezama	34	2.234
Larrabetzu	9	1.629

(Datu horiek gutxi gorabeherakoak dira, etorkinen kopurua etengabe aldatzen da eta)

Cristina Diego Rubiños Mario Barral Giuliani (Argentina, 41 eta 49 urte)

Argentinako azken urteotako egoera ekonomikoa ikusita, senar-emazte hauek aspaldi erabaki zuten beste leku batean berriro hastea. *Corralito* arazoak erabaki tinkoa hartzera bultzatu zituen azkenean.

Orain dela 8 hilabete ailegatu ziren Zamudiora hiru seme-alabekin. Zergatik Txorierrira? “Hemen familia dudalako”, dio Cristinak. Gainera, aita Bermeokoa denez, berak eta seme-alabek herritartasun bikoitza dute aspalditik. Mariok, berriz, ez dauka, eta familiaren elkartzea izeneko tramitea egin behar izan dute, bera hemen egon ahal izateko. Hala ere, espainiarren iloba da eta, horregatik, herritartasuna lortzeko, espainiarren ondorengoa dela erakutsi behar du, bai eta legezko bizilekua urtebetean bertan eduki ere.

Ez dute trabarik izan, beraz, ez pape-rak lortzeko, ezta lana topatzeko ere. Mario biokimikoa zen Argentinan, eta Parke Teknologikoan egiten du lan orain; Cristinak irakaskuntzari utzi dio eta zahar egoitza batean dabil lanean.

“Argentinako senide eta lagunen falta sumatzen dugu, baina, batez ere, seme-alabek, eurek ez dutelako etorkizunaz guk dugun ikuspegia”, azaldu digute.

Argentinarrei integrazioa ez zaie batere zaila egin, Zamudioko senideen laguntza izateaz gainera, beharbada txikitatik ezagutu zutelako giro euskalduna. Hala eta guztiz ere, zaila egingo zaie ahazten haragi erreka jateko eta matea hartzeko eginiko lagun arteko bilerak.

Denbora gutxi daramate gure artean, eta hona etortzeko arrazoiak oraindik sendoagoak dira herrimina baino. “Hemen erroak egiteko asmoa daukagu. Bizitzak berriro eramaten bagaitu Argentinara ... Etorkizuneko kontuak dira horiek”, esan digute.

Tarek Albarazi Tello (Siria, 34 urte)

Zein harrigarria den bizitza! Tarek-ek Txinan ezagutu zuen emazte larrabetzuarra. Herrialde horren eta Siriaren arteko akordio baten bidez, master bat egiten zebilen Pekingo unibertsitatean, eta hemengo neska ere hantxe izan zen bertako hizkuntza ikasten. Haien artean amodioa piztu zen, baina Siriako gobernuak bere herritarrei ez die uzte atzerritarrekin ezkontzen, eta, masterra bukatu ondoren, Larrabetzura etortzea erabaki zuen. Erabaki horrek arazo handiak ekarri dizkio, berak gobernurako lan egiten baitzuen ikerketa zentro batean.

1999. urteko urtarrilean ailegatu zen Tarek Txorierrira. "Aurreko abuztuan ezkondu ginen eta horregatik ez nuen izan arazorik paperak lortzeko", kontatu digu. Espainiako nazionalitatea hurrengo urtean lortu zuen.

Gainera, ikasketei dagokienez, prestakuntza ezin hobea dauka eta horrek ateak ireki dizkio lan merkatuan. Gaur egun, telekomunikazioetako ingeniari moduan egiten du lan.

Hizkuntza, oster, buruhauste handia izan zen siriarrarentzat. "Ingelesekin konpondu ahal izango nintzela pentsatzen nuen, baina lan-elkarrizketa batzuetara joan eta gero konturatu nintzen beste erremediorik ez nuela gaztelera ondo ikastea baino", aipatu du. Orduan, buru-belarri hasi zen hizkuntza ikasten, amaginarrebak lagunduta.



Tarek-ek Damaskon ez zuen lasaitasuna aurkitu du Larrabetzun. "Oso jende atsegina da. 1998. urteko udan etorri nintzen oporretan, eta lagun batzuk egin nituen orduan. Gainera, alaba txikia dudanez, harremanak izaten ditut beste gurasoekin... Oso ondo hartzen naute herrian", kontatu digu pozik. Hasieran, umetxoarekin arabiarrez egiteak lotsa apur bat ematen zion. "Senideek neure hizkuntza mantentzeko aholkatu zidaten eta orain oihu egin, jolastu eta korrika egiten dugu kalean. Ez dago arazorik", ziurtatu digu.

Jaioterriko janari bereziak prestatzen ditu asteburuetan. Bere herriko ohiturei

"Nire herriko ohiturei jarraitzen diet, ahal dudan neurrian. Lortu ezean, neure buruari barkatzen diot"

dagokienez, ahal duen neurrian jarraitzen diela komentatu digu. "Lortu ezean, neure buruari barkatzen diot", azaldu digu.

Siriako Gobernuarekin dituen arazoak egun batean konponduko direlako itxaropena dauka. Horrela, berriro besarkatu ahal izango du hango familia.

ATSEDENERAKO EKIPOAK. % 100 LATEX NATURALA

10 URTEKO PERMISA, PROZENTU QUINTAN GRADU GARBIAK

ARTEAGA

KONTXOPI-DEKUM

Artizanoak: Ikerriko Semmariako

PERU

Telefonoa: 94 454 51 47

ORDUTOKIA:

Asteko eta larriko: 9:00-14:00 eta 17:00-20:00

Ordu: 16:30-20:00

Orduak: 16:30-20:00

Orduak: 16:30-20:00



"Abisioa gure herriko ohiturei"

Isabel Prieto Habets (Holanda, 34 urte)

Isabeli ez zaio asko kostatu Derioko bizitzara moldatzea, urtero etortzen zelako oportetan. Senarra hemen ezagutu eta hemen bizi da 1995az geroztik. Gainera, Holanda Europako Batasunako herrialdea denez, ez du izan inongo oztoporik. Hala ere, ez du eskatu espainiar nazionalitate-rik, bestela holandarra galduko luke. "Arazo bakarra diru aldetik izan nuen", gogoratu du, "Holandan dirulaguntzak izaten ditugu, baina hemen nahiko zaila izaten da lortzea".

Dena dela, lagunak eta, batez ere, familia uztea beti izaten da gogorra. "Hemen ditut osaba, izeba, lehengusuak, senarraren senideak... Laguntza handia eman didate, baina ez da gauza bera", azaldu digu nostalgiaz.

Herri bien arteko ezberdintasunik nabariena bizitza sozialean aurkitu du. Holandan arratsaldeko seiatarako etxeratzten da jendea, edo lagunaren etxean ematen dute astia. "Hemen, berriz, arratsaldeko 6etan irteten gara kalera. Honetaz gain, tabernetan biltzen gara eta... Oso altu egiten duzue berba! Denok batera! Hori bai estresa!", barre egin du.



Hala eta guztiz ere, ohitura hartu du eta, Holandara joaten denean, giltzaperatuta balitz bezala sentitzen dela aitortu digu.

Paperen bat konpondu behar duenean, lagunduta joaten da beti, oraindik ez delako oso ondo moldatzen. Aita asturiera denez, hemengo jateko modua ezagutzen du txikitatik, eta alde horretatik ere ez da izan arazorik. "Beno, guk hirigasa erabiltzen genuen Holandan, eta butanoko sukaldea ikusi nuenean... Aizu,

ez nekien janaria prestatzen!", barre egin du berriro.

Familia izateko dago (Aikor! kalera atera orduko, agian alaba jaioberriarekin egongo da etxean) eta, gainera, bost urteko semea dauka. Honek hitz pare bat erakutsi dio euskaraz, baina berak apenas egiten dio nederlanderaz. Egun, ikastetxe baten garbiketan egiten du lan. Lehen, haserre zegoenean, maleta hartu eta Holandara bueltatuko zela esaten zuten. "Orain ez nuke egingo", ziurtatu digu.

ANDRA MARI Klinika



**NUTRIZIOA ETA
ELIKADURAREN ARAZOAK**
Elena Diaz Ibarra doktorea

ÓPTALMOLOGÍA
Edurne Freixanilla doktorea

HOMEDOPATIA
Immaculada Aguirre doktorea

**ANÁLISI KLÍNIKOAK:
LABORATEGIA**
Pilar Ramila doktorea

OTORRINO
Nelson Cascon doktorea
Belén de la Iglesia doktorea

PSICOLOGÍA KLÍNICA
Cristina Calaya lizenziatua

KIRURGIA OROKORRA
J. M. García Mazaña doktorea

**LASER BIDEZKO
DEPILAZIOA**
Irene de Uña doktorea

LOGOPEDIA-LOGOFONIATRÍA
Lola Sívano diplomadua

KIROR MEDIKUNTZA
Susana Gil Orozko doktorea

GINEKOLOGIA
Jesús Etxebarria doktorea

ERRADIOLOGÍA OROKORRA
J. Antonio Rodríguez doktorea
J. Antonio López doktorea
Antonio Marco doktorea
Araceli Martínez doktorea

FISIOTERAPIA
Pep. Javier Diaz diplomadua

KARDIOLOGÍA
Gorka Martínez doktorea

DERMATOLOGÍA
José Manuel Olaga doktorea

Porta Zabalak kalea, 1 (Juan Bautista Urrutik kaleko isurra)

☎ 94 457 25 10

Galdakao

Partaide gutxi, baina gogo handia



Testua: Itxaso Marina
Argazkiak: Sondikako Txistu Elaiak taldea


Orain dela 35 urte Ipar Elaiak txistu taldea sortu zen Sondikan Ignacio Zarandona apaizaren eskutik. Gaur egun partaide gutxi izan arren, adorez jarraitzen dute herriko jaiak girotzen. Taldeko Asun Apodaka eta Alberto Garciarekin izan gara.

Zenbat lagun zarete taldean?

Hamar bat lagun izango gara. Bik atabala jotzen dute eta besteok txistua eta danbolina. Bitxikeria lez, aipatzekoa da familia oso bat dugula taldean: senarra, emaztea eta seme-alaba (barre egiten dute, Asunen familiaz ari direlako). Gainera, jarraitzaile leial-leiala ere badugu, Sabin Elexpuru hain zuen ere. Gurekin kalejira guztietara etortzen da... (barreak orain ere bai)

Jende gutxi, orduan...

Bai. Azken urte hauetan partaide kopuruak behera egin du. Ikasketengatik edota beste gauza batzuetan ari direlako gazteek, azkenean, jotzeari utzi egiten diote. Gainera, txistua jotzeko solfeo apur bat





Duda barik. Primeran pasatzen dugula ezin dugu ukatu.



MENFORSAN S.p.A.

SPERONE E M. KONERICH A

Una struttura, un'unica tecnologia, la garanzia di Menforsan

Struttura e tecnologia: la garanzia di Menforsan

Struttura e tecnologia: la garanzia di Menforsan

Struttura e tecnologia: la garanzia di Menforsan

Struttura e tecnologia: la garanzia di Menforsan

Struttura e tecnologia: la garanzia di Menforsan

Struttura e tecnologia: la garanzia di Menforsan

Struttura e tecnologia: la garanzia di Menforsan

Struttura e tecnologia: la garanzia di Menforsan

Struttura e tecnologia: la garanzia di Menforsan

Struttura e tecnologia: la garanzia di Menforsan

Udazkenerako landareak

Uda kiskalgarria joan zaigu eta, berarekin batera, hainbat landareren sasoia ere bai. Hori dela eta, orain dugu gure lorategia, gure balkoia, hau da, kanpoko landareak aldatzeko momentu egokia. Eta orain arte ez badaukazu landarerik, ipin itzazu, landare barik ez baitago sentiberatasunik. Horretarako hementxe daukazu Lexamako KIMA landarak-eko arduraduna den Benitoren zenbait aholku:

Zer landatu

Txorierriko klima epelean ondo moldatzen

diren landareak:

-Urrelilia edo krisantemoa. (Crysanthemum).

-Ziklamena (Cyclamen sp.).

-Udaberri-lorea edo San Jose lorea (primula sp)

-Papantza, pentsamendua edo bioleta. (Viola sp)

Horiez gain, urte osorako beste hauek ere landa ditzakegu:

-Geranioa (Geranium sp.).

-Leiho-geranio(pelargonium sp.).

-Andere-belar edo begonia (Begonia sp.).

Erraboiak

Sasoi hau oso egokia da hurrengo erraboiak ereiteko:

-Idi-bihotza edo tulipa (tulipa sp.)

-Hiazintoa (Hyacinthus sp.)

-Lilipa edo nartzisoa (narcissus sp.)

-Eguerdililia edo anemona.

-Urrebotoia (Ranunculus sp.)

-Azafraia (Crocus sativus)

-Zitori arrunta (Lilium candidum)

-Kala (Zantedeschia aethiopica)

-Hartz baratxuria (Allium

Zelan landatu

-Lurrean zuloa egin (landarearen sustrai-lurra baino handiagoa).

-Ateratako lur ona alde batean utzi, eta txarra beste alde batean.

-Landarea sartu –lehen zegoen altueraraino-, lur ona behean bota eta txarra goian.

-Gero zapaldu asko eta ureztatu putzua egin arte (sustraiei inguruko airea kentzeko).

-Landarea ontzian badago urte osoan landa daiteke; bestela,

Ardurak

Kanpoan landatzera bagoaz, hemengo lurra nahiko azidoa eta buzintitsua dela kontuan hartu behar dugu. Beraz, lurrari errekako harea, materia organikoa eta ongarrria bota behar zaie-la ezin dugu ahaztu edota, asko behar ez badugu substratu unibertuala.

Ongarrria bota, gutxi eta maiz, osterantzean erre egingo dugu eta. Ongarrria botatzerakoan kontuan hartu behar dugu udan eta neguan gutxi bota behar dugula eta, udaberrian eta udazkenean, berriz, gehiago.

Babestu iparraldeko haizetik.

Udazkenaren amaieran, inausten has gaitetzke.



Udazkenean ere aukera ederra daukagu landareen munduan.



Katxea

Testua: Alberto Legarreta

Zer da katxea?

Tartean biltzeko memoria da. Memoria honetan biltzen da gehien aukeratu behar ditugun datuak, eta horixe da katxe teknologiaren oinarria. Arindu egiten dau datuen sarbidea, ze eskatzen badozuz barriro datu bardinak ez dozu iturrira joan behar, katxeko memoriatik biltzen dituzu eta arinagoa da.

Datuen erabilera garrantzitsua da; dispositiboak ahalmen bat dauka eta sistemaren arabera erabilera bata edo bestea izan daiteke. Artikulo hau interneten oinarrituta dago. Datuen kudeaketa normalean FIFO (First In First Out) izaten da, lehena biltzen dana lehena urtetzen da. Beti dagoz bilduta azkenengoz beheratutako datuak.

Katxe-mota asko dago; hemen azertu egingo doguz interneteko nabegadoreak eta proxy-katxea.

Interneteko Nabegadoreetan.

Nabegadore guztiek daukie katxeren bat, eta hortxe dagoz bilduta beheratutako azken web orriak. Internet Exploren "Temporary Internet Files" deitzen jake. Nahiko erabiliak dira atzera eta aurrera jotzen dogunean eta arintasuna emoten dau nabegatzerakoan.

Bakarrrik arazo bat emon leike, eta da ez ekartea web orriaren azken bertsioa. Badaezpadan gure aholkua da noizbenka garbitzea katxe hori.

Internet exploren.

Herramientas Opciones de Internet Archivos Temporales de internet Eliminar Archivos.

Netscape.

Edit Preferences Advanced (Category) Cache

Han sakatu Clear Memory Cache eta Clear Disk Cache.

Proxy-katxea.

Azkenaldian modan dago ipintea, memoria haundiko proxy bat da eta katxe bezela erabilten da.

Proxy internetetik nabegatzeko servidorea da, zeure sarean ipinita ezaugarri batzuk emoten dauz:

-Segurtasun gehiago.

-Danak IP bardinagaz ateratzen dira internetera (desabantaila lez hartu daiteke ere).

ISP (Internet Service Provider) askok

ipini dabe, eta horrek abantaila batzuk emoten dauz:

-Arintasun gehiago nabegatzerakoan.

-Banda-zabalera gitxiago erabilten da.

-Web Serbidoreek lan gitxiago daukie.

-IP bategaz urtetzen dira internetera.

Baina araso batzuk dagoz:

-Batzutan besteen datoak ikusi leitezke, segurtasun falta.

-Eskatzen dozun web orri batzuren azken bertsioa ez da ateratzen.

-IP bategaz urteteak erabiltzailearen aukerak murrizten dauz.



Aramu bakartien sarean VI

Oporretatik bueltan gatoz aramua zirikatu gurean, udan ordenagailua lozorroan izan ostein. Oraingoan aztertuko dugun webgunea aspalditik erabilgarri egon arren, azkenaldian izandako inkisiberben ondorioz gaurkotu zaigu berriro. www.ezesan.es guneaz ari gara. Gezurra badirudi ere, euskaraz dago bere osotasunean, ziurrenera euskara zigortzeko ikasi duen norbaitek itzuli duelako. Ezta pentsatu ere atalean boterean daudenei egundo esan behar ez zaizkien berba, esaldi eta argudioen zerrenda dago, egunen baten lan eske joan behar baduzue ongi ikasita eramateko modukoak denak. Bertan aurkituko dituzue Manu Chaok eta Fermin Muguruzak udaren amaieran esandakoak, gorritz azpimarraturik inork horrelakorik esateko ausardia izan ez dezan. Neuk diodalako atalean, berriz, eztabaida edo solasaldiren batean arrazoirik gabe geratzen bazarete edo zuen solaskideak ideiak zuek baino argiago baditu eta entzuteko gogorik ez baduzue erabili beharreko esaldiak dituzue, adibidez, Gotzone Mora eta Iñaki Ezkerrak Julio Medemen filme bati buruz esandakoak, euskaldunei buruzko edozein kasutan erabilgarriak direnak. Esan beharrik ez dago benetan gune baliagarria dela eta geure seme-alabei eskolan erakusten ez dietena erakusteko aukera paregabea dela.

Testua: Bihotz bakartien klubeko kidea

Proxy-katxea erabiltearen inguruko eztabaida zabalik dago: ISP-rentzat danak dira abantailak, baina interneten kexa asko dagoz eta bezero asko ez dira oso pozik. Hemen helbide interesgarri batzuk:

<http://www.internautas.org/article.php?sid=925>

http://www.rootaccount.net/proxy_cache.html

<http://www.rediris.es/si/cache/>

<http://www.um.es/atica/proxy/>

Nire ustez Proxy-katxea abantaila bat izan daiteke, baina ondo konfiguratuta badago, bestela arazo asko emon leike. Proxy-katxe asko dagozanez, bat edo bestea ipintea ezbardina izango da.

Nik oraindino ISP proxy-katxea barik kontratatuko neuke, ez dodalako uste oso ondo dabilenik, horren inguruko kexa asko ikusi dodaz-eta interneten.

Gratias Multi Media Theatre
Jon Marquet Garcia
MONTAÑAN, MONTAÑAN
GRATIAS

SUNOS COMPUTERS S.L.
SERVICIOS DE INFORMÁTICA Y COMUNICACIÓN
TEL: 91 55 55 55 55
CALLE DE LA VIOLETA, 10 - 28014 MADRID
www.sunoscomputers.com

TALENTES JUAN ANDRÉS
SERVICIOS DE INFORMÁTICA Y COMUNICACIÓN
TEL: 91 55 55 55 55
CALLE DE LA VIOLETA, 10 - 28014 MADRID
www.talentosjuanandres.com

Loiu, 2003. urteko uda; argazkiak oroitzapenerako

Bai, Loiuako umeek nekez ahaztuko dute aurtengo uda hau. Izan ere, primeran pasatzeko aukera izan dute uztailean antolatutako herriko udalekuetan. Horrela, asteko egun bakoitzean hainbat ekintzatan hartu dute parte: tailerretan, jokoetan, irteeretan... Jolas hauek Zabaloetxeko Udal Aretoa, Udaletxe inguruko parkea eta frontoia izan dituzte eszenatoki. Ziur asko, lagun handiak ere egin dituzte.

Argazkiak: Loiuako Udala



Tranpak egiten ote dabilta ume hauek?



Lagunekin egoteko uneak daude beti.



Neska hauek klaseko azkarrenak direla erakutsi dute Trivial-en.



Baietz ume hauetariko bat blai eginda amaitu!

RAIMON

WATERPROOF SPORTSWEAR

Qualifying place for 1st place (qualification for 1st place)

Josune Paredes Lopez

1st place

HORTZ - KLINIKA

Jaime Azurmendi Garai

Takamán Plaza, 1 - 1ºA

40100

Teléfono: 949 500 100

Imaginación

ITODI

1st place

1st place

1st place

Lezamako Torrea

Askotan entzun izan dugu Lezamako Torrearen inguruko istorioren bat, are gehiago, uda honetan Eusko Jaurilaritzak Monumentu izendapena eman ondoren, baina... Zein da eraikin horren benetako historia?

Lezamako Aretxalde auzoan den Lezamako Torrea Percibo Caballeroren oinordekoek eraiki zuten XVI. mendean eta tradizioak dioenez, bertan bizi izan zen jaurreriko leinurik nagusia; izatez, leinu horrek eman zion izena elizateari berari, inguruko bandoekin borroka ugari egiten zuen bandoaren buru gatazkatsua izan zen elizateari hain zuzen ere. Lezamako Pedro Ruizek berreraiki eta handitu egin zuen torrea 1360an eta berrogeita hamar urte beranduago Lezama eta Diaz de Landa sendiek borroka latza izan zuten dorre horren inguruan.

Beranduago (1420. urtean), Lezama leinua Pedro Cigorrekin batu zen eta Rodrigo eta Fortun Aguirre-Zugastiren aurka gogor ekin zioten. Bi bandoen artean borroka latza izan ondoren, Fernando de Lezama jaunaren suhiari, Larrabetzuko artzapezpikuaren semeari, burua moztu zioten haren etxearen ate aurrean.

Hilketa horren ondorioz, hainbat borrokaldi izan ziren, luze iraun zuten borrokal-di horiek, baina gutxi-gutxika eta ezkontzei eta justiziaren parte hartzeari esker, borrokak indarra galduz joan ziren eta azkenean, bandoen arteko bakea lortu zen.



Lezamako Torreari buruzko datu batzuk

- XVI. mendeko eraikina, hareharri harlanduz egina
- Bolumena murarioa, soila eta ia baorik gabekoa
- Fatxadak hormatal leunak eta apaindurarik gabekoak
- Oin karratua, eta 16 metro inguruko altuera
- Fatxada bakoitzeko erdiko goi-ertzean erdi-puntuko arku bat
- Mendebaldeko fatxadan arku eskartzanoa
- Hegoaldeko fatxadaren alde osoan baserri bat erantsita
- Mandioa hegoaldeko fatxadan dago. Harlanduzko oso armarri higuatua hondakinak daude
- Lehenengo solairuan torrearen sarrera dago. Dobelen gainean "El marqués de la Torrecilla, Torre Lezama, Conde de Aramayona" inskripzioa eta Butroi eta Muxikako armariak azaltzen dira

Errepidea dela eta...

Orain dela hilabete batzuk, Lezamako Torrearen jabeek gutun bat bidali zuten Aikor!rera, torretik 14 metrotara errepide bat egiteko asmoa zegoela salatuz. Aikor!retik eurengana jo dugu eta ez dutela berri gehiagorik izan komentatu digute. Horren inguruan, esku-hartzeko irizpide orokorrak izeneko atalean honako hau dio Eusko Jaurilaritzak: "Torrearen ingurua hondatu edo ikuspegia murritzuko duten esku-hartzeak, barne hartuta bide, aparkaleku astunak edo hiri-altzari bate-raezinak, debekatuta daude. Torrearen inguruak kutsu landatarra gorde behar du".

Sabla Askolitzaga
Arropen, Arropen
Arropen
609 47 57 46
100-11 10000
100-11 10000

PATKI 100-11
100-11 10000
100-11 10000
100-11 10000

ZAMUDIO
100-11 10000
100-11 10000
100-11 10000

Ruben
100-11 10000
100-11 10000
100-11 10000

luz zamudio
100-11 10000
100-11 10000
100-11 10000

TXORIERRI
100-11 10000
100-11 10000
100-11 10000

BEHAR- BIDASOA GKE -Lezama Kolonbian

Kaixo irakurleok,

Uda honetan, eta gure opor egunak aprobetxatuz, Kolonbian izan gara. Dakizuenez Kolonbian biolentzia egoera larria bizi dute. Militarrek, paramilitarrek eta gerrillak etengabeko gerra egiten diote elkarri. Horren ondorioz ume kolonbiarren %20k parte hartzen du konfliktu armatuan. 2001. urtean 93.000 ume izan ziren desplazatuak beraien familiekin batera. Hirietako auzoetan kokatzen dira, beraienak ez diren lurretan eta ahal duten moduan txabolak eraiki eta miseria gorrian bizi behar dute. Kolonbiako populazioaren %59,8 pobrezia mugatik behera bizi da.

***“Ume kolonbiarren
%20k parte hartzen
du konfliktu armatuan”***

Hala ere, bidaia emozioz beterikoa izan da. Gure lagunak diren moja Pasionistak ikaragarritzko lana egiten ari dira bizi diren auzoan. Hemendik bidaltza-


ko dirulaguntzari esker Tailer-Eskola handitu egin dute. Egun badira bost lanbide bertan ikas daitezkeenak.

Tailer hauekin batera haur txikitxoentzako ludoteka, liburutegi berria eta kultur aretoa ere eraiki dira eskola barruan.

Gosea, beldurra, insegurtasuna, mota guztietako biolentzia, etorkizunik eza eta abar nagusi diren auzo eta herri honetan, oso inportanteak dira horrelako erreferenteak. Jende horrek duintasuna berreskuratzea behar du, liderrak sortu eta egin behar dira, beraiek izan daitezzen bere etorkizunaren jabe.

Zapalkuntzari aurre egiteko tresnak behar dituzte eta hezkuntza ezinbestekoa da horretan. Horregatik da hain inportantea proiektu hau.

Testua eta argazkia: BEHAR- BIDASOA GKE - Lezama



Euskaldunak non, ikurrina han. Milagros Gabilondo, Kolonbiako Pasionisten burua, pozik herrikideak etxean izanda.

“LAIA HOTEL MUSEOA”



Parke teknologikoa

Eraikina 806 - Derio (Bizkaia)
Tel. 94 431 76 80
Fax 94 431 76 81
laia@saviat.net
www.saviat.net

Txorierrin kokatuta dago, Derioko herrian. Energia berriztagarrien sistemei esker, berau da hotel ekologiko bakarra.

Hidromasajeaz hornitutako 38 gela ditu. Gorriti euskal eskultoreak beren-beregi egin du ohe bakoitza.

Euskal Herriko historiaurretik gaur egunera arteko elikatze-moduak erakusten dituen museo bat jarri da jantokian.

Euskal gastronomia dastatu ahal izango duzu, antzinako errezetak zein sukaldaritzarik berritzaileena.

Fitness eta spa zentroak relax zirkuitu hau eskaintzen dizu atseden hartzeko eta erlaxatzeko: sauna, vaporiuma, jacuzzia, dutxa inguratzaile eta automasajeko koltxonetak.

Aurreko galderaren erantzuna: Zamudioaren kontra jokatu zuen Athleticen aurre-denboraldiko lehen partida.

Irabazlea: Aitziber Mandaluniz Lekanda.



LEHIAKETA

Hilero-hilero, lehiaketa bat egingo dugu aldizkarian. Saria haxe izango da, lagun birentzat: asteburu batean gau bat pasatzea Laia Hotel Museoan. Sariaren barruan daude gela bakoitza, buffet-gosaria eta Spa zirkuitua (sauna, jacuzzia, etab.)

Zozketan parte hartzeko, galdera hau erantzun behar duzue:

Zenbat bikotek hartuko dute parte Lezamako eskualdeko pilota txapelketan?

Bidali erantzuna (zuen telefonoarekin), urriaren 15a baino lehenago, postaz (Totoan, Aretxalde 1, 48196 Lezama), edo aikortxori@yahoo.es helbide elektronikora idatzita.

(Saria Laiaren eskaintza duzue).

Sukaldaritza

Etxeko sukaldaritza

Atuna piper berde eta kipuleagaz

Osagaiak (4 lagunentzat)

- Kilo bat atun
- 4 piper berde (handiak)
- Kinpula handi bat
- 4 tomate
- Oliba olio
- Gatza

Prestatzeko era

Atunari gatza bota eta prijidu apur bat. Atara sartenetik eta oliotara kinpulea, piperrak eta tomatea txikituta bota eta euki su txikian ondo egin arte (gatz apur bat bota). Atunari azala eta hazurrak kendu eta kazuela baten ipini, eta bota berdura guztiak ganera.



Mari Tere Onaindia

Laranjazko krepeak

Osagaiak

- 60 gr irin
- 30 gr gurin (likidoa)
- 1/2 edalontzi esne
- arrautza bat
- gatza
- glass azukrea
- laranjazko marmelada
- txokolatezko izozkia

Prestatzeko era

Gurin likidoa, irina, esnea, gatza eta arrautza ontzi batean nahastuko ditugu. Gero, nahasketa hori iragazi egingo dugu.

Zartagin bat sutan jarri eta gurin pixka batekin igurtziko dugu. Ondoren, nahasketa bota eta tortila meheak balira bezala egingo ditugu krepeak. Hori bai, alde bietatik frijituko ditugu.

Hoztu eta gero laranjazko marmeladaz beteko ditugu, zapi itxura emanez. Azkenean, plater bakoitzean krepe bana zerbitzatuko dugu glass azukreaz eta txokolatezko izozkiaz lagunduta.



San Isidro jatetxea Derion.



GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

"Kafea hartzea Iruñean"

R. Laxalt

Aspaldian argitaratutako liburua, literaturaz gozatzeaz gain, alde soziokulturala aztertzeak aukera.

"Ekidazu, lehoiek ez dakite biolina jotzen"

Kirmen Uribe

Hemen duzue Kirmen Uribek, Mikel Zarateren liburu batean oinarrituta, Kukubiltxo taldeari egindako moldaketa. Liburu ederra, benetan!

DISKOAK

"Buenos hermanos"


Ibrahim Ferrer

"Orenda"

Joanne Shenandoah—Oneida eta Mohawk herrialdeetako musika.

"Tubular bells"

Mike Oldfield



DENBORA PASA







Benetan ezagutzen duzu Txorierrri?

AIKOR!-en aurreko alean Txorierrriko elizak jarri genituen atal honetan.

Gai izan zinen herri bakoitzagaz lotzeko, ezta? Oraingo honetan eta

hurrengoetan zure ezagupenak aztertzen jarraitu gura dugu. Asmatzeko

elizetara apur bat gehiago parajetu beharko dozu eta ate nagusiak ezagutu. Ez da hain erraza, ezta? Ikusten duzunez, hainbat estilotakoa dagoz.



LARRABETZU 1

ZAMUDIO 2

LEZAMA 3

SONDIKA 4

ERANDIO 5

LOIU 6

DERIO 7

Benetan ezagutzen duzu Txorierrri? Emaizak: A3, B5, C4, D6, E2, F1, G7



Irteerak

Sondika

Kilometroak-Lazkao. Urriak 5.
Galdetu Gaztetxean.

Nafarroa Oinez-Lumbier. Urriak 19.
Galdetu Gaztetxean.

Zamudio

Kilometroak. Urriak 5.
V. Nazioarteko superkrossa. Urriak 18, 19:15etan. Galdetu animatzailearen bulegoan. Lezama eta Sondikako udalekin batera antolatutako irteera.

Nafarroa Oinez. Urriak 19.

Lezama

Peñas Rociaserako mendi irteera (Kantabria). Urriak 12, 8:30etan. Gailur Mendi Taldeak antolatuta.

Nafarroa Oinez. Urriak 19. Galdetu liburutegian

"La brisa de la vida" antzezlanaren ikus-
teko irteera. Urriak 25, Arriaga Antzokian.
Galdetu liburutegian.



Filmak eta antzerkia

Zamudio

Stich, urriak 3. Blue Crush, urriak 10.
Asterix y la sorpresa del cesar, urriak 17.
Jhony English, urriak 24. Inspector Gadget II, urriak 31.

"Monólogos de humor" antzerkia.
Urriak 25, 19:30etan. Zamudioko dorretxean.

Txapelketak

Lezama

Eskualdeko pilota txapelketa. Urritik aurrera barikuerako frontoian, 20:00etan. Pilota Elkarteak antolatuta.

Ikastaroak

Lezama

Guraso eskola. Urriak 29tik aurrera. Galdetu Txorierriko Mankomunitatean (94 4540350) edo liburutegian.

Umeentzako irakur susparketa.
Urriak 17, 18:30etan liburutegian.

Azokak

Loiu

Eskulangintza eta gastronomiako XI. azoka. Urriak 19, 10:30etatik 14:30etara.

Erakusketak

Zamudio

El arte de la marioneta. Corrado Massaciren erakusketa. Urriak 14-31.

Hitzaldiak

Zamudio

Jon Abril eta Asier Gogorza. "Txina dragoia ernatzen delarik" bidaia diaporama. Urriak 28, 20:00etan. Dorretxean. Lagatzuk antolatuta.



Kontzertuak

Zamudio

Maixa. Urriak 17, 22:00etan. Dorretxean. Lagatzuk antolatuta.

Amor de Barrio
El amor hay en todos los barrios.
Lugar: Euzkadi, 11 (Ejeo - 48001)
Tlf: 941 540 006

- Laganeko Menuak
- Kordakadak
- Marlinak (Pintxo)
- Karta Zabalak

Bar TRIPPY
JUNE CHOROK ONEA

Bizka herriko erdiko erakunde, eta herriko erakunde
eta herriko erakunde, eta herriko erakunde, eta herriko erakunde.

Herriko erakunde
4 88 1 11

FMC Forest, S.L.

Forestalariak
Herriko erakunde, eta herriko erakunde, eta herriko erakunde, eta herriko erakunde.

Herriko erakunde
Tlf: 941 540 006

FMC forest



Etorkizuna Eraikitzen

Garapena eta Ingurugiroaren artean.
Teknologia eta Enpleguaren artean.
Banaezina.



GRUPO

Industria de Turbo Propulsores, S.A.

atera gorria!



bbk=

www.bbkk.es

BBK26=

abantaila eta deskontu pila